LEGAZPIKO AGENDA 21EKO FOROAREN BILERA IREKIAREN **AKTA**

2018ko irailaren 27an, 18:30etik 20:00etara,
Legazpiko Laubide auzoko haurreskolan

Drainatze iraunkorreko hiri-sistemak

2 proposamen Legazpin uraren zikloa berreskuratzeko:

1. Berritu berri den Latxartegiko parke txikia
2. Laubide auzoko parkean jarriko den estalkia

0. GAURKO TAILERRA

Udako oporretatik bueltan, eta indarberrituta, Legazpiko Agenda 21eko Foroak bere ibilbideari ekin dio berriro.

Gaur, gainera, Laubide auzoko haurreskolan bilera irekia egitea erabaki dugu eta bertatik bertara landuko dugu aurten Foroan indarra hartu duen gai bat: drainatze iraunkorreko hiri-sistemak. Sistema horiek herrian euri-urak jasotzeko sarean integratzen diren elementuak dira; eta haien helburua, lurrean urak jaso, filtratu/araztu, gorde, garraiatu, biltegiratu eta/edo iragaztea da, uraren zikloa berreskuratuz.

Segidan, gaurko saioaren oinarrizko kontuak bildu ditugu, ondorengo eskema jarraituz:

1_ Parte hartu duten pertsonak
2_ Hasierako oharrak
3_ Gaurko gaia: Drainatze iraunkorreko hiri-sistemen 2 eredu Legazpin. Latxartegi eta Laubide auzoko parkeko proiektua.
4_ Eskerrak ematea eta amaiera

1. PARTE HARTU DUTEN PERTSONAK

Gaurko tailerra berezia izan da eta saiora pertsona berriak etorri dira. Guztira 33 pertsonek hartu dute parte – 18 emakume eta 15 gizon[1]-.

Laubide auzoko haurreskolan eman diogu bilerari hasiera baina bigarren zatian kanpora irten dugu eta Laubide auzoko parkean bertan jarraitu dugu lanean. Kalean geundenez, herritar asko hurbildu dira eta beste askok balkoietatik jarraitu dute bilera. Esperientzia ederra izan da!

Eskerrik asko guztiei, eskerrik asko Legazpiko Agenda 21eko foroaren lan-saio irekian parte hartu duzuelako!

[1] Pertsona guztien izen-deiturak jaso ezin izan direnez, gaurko aktan kopuruak bakarrik jaso ditugu.

2. HASIERAKO OHARRAK

Ongi etorria eta aurkezpen egin ondoren, lehenengo minutuak Legazpin iraunkortasunarekin zerikusia duen informazioa partekatzeko erabili ditugu. Hona hemen ideia nagusiak:

- Hondakinak biltzeko sistemaren gaineko informazio-orria hainbat hizkuntzatara itzuli da.

  Legazpiko Agenda 21eko Foroaren ekarpenari esker, hondakinak biltzeko sistemaren gaineko informazio-orria sei hizkuntzatan banatzen da: euskara, gaztelania, ingelesa, frantsesa, errumaniera eta arabiera.
  Gainera, eskualdeko beste udalerrietan ere banatuko da.

- Ekoscan programaren baitan, Legazpiko Udalak ingurumen arloan gauza berriak lortzen jarraitzen du.

  Energia aurrezteari dagokionez, aurten 3 bulegotan fluoreszenteak aldatu dira eta horri esker % 59ra iritsi da energia-aurrezpena; bestetik, Urtatza 40an arropa jasotzeko edukiontzia jarri da eta horrek arropa gehiago jasotzea ahalbidetu du. Bestalde, helburu berriak ezarri dira: paperaren erabilera hobetzeko, energia-kontsumoa murrizteko eta hondakinak egokiago kudeatzeko.

- “Lurzurola” eta “Baietz txukun mantendu” izeneko sentsibilizazio-kanpainak arrakastatsuak izan dira.

  Eta ezinbesteko eta egin beharreko hausnarketarekin: kanpainak ondo gauzatzen dira eta eragina dute dirauten bitartean baina egia da, halaber, ez dugula herritarren azturak aldatzea lortzen –adibidez, parkeak eta eremu publikoak garbi mantentzen-. Zer egin dezakegu edo egin behar dugu beste modu batera?

- 2018ko mugikortasun iraunkorreko astean ekintza desberdinak egin dira.

Eta guzti horri gonbidapen bat gehitu behar diogu:

- Irailaren 29an, larunbatean, 2018ko Erreka Eguna ospatuko da, 9:30etik 12:30era.

3. GAURKO GAIA

Drainatze iraunkorreko sistemak Legazpin: horiek ezartzeko egindako azterketaren emaitzak

2018ko martxoko eta ekaineko Agenda 21eko Foroetan, udalerrian drainatze iraunkorreko hiri-sistemak ezarri ahal izateko Legazpiko Udala egiten ari den azterketari buruz hitz egin genuen.

Ane Mendinueta udal arkitektoak gogora ekarri digunaren arabera, Legazpiko Udalak eta KRBLAN eta Endara Ingenieros taldeak udalerria aztertu dute eremuka; eta eremu bakoitzean bertako iragazkortasuna, filtratzeko gaitasuna eta drainatze iraunkorreko hiri-sistemak ezartzea baldintzatzen duten beste hainbat kontu aztertu dira.

Horren arabera plano bat egin da eta, bertan, drainatze iraunkorreko hiri-sistema bat ezarri ahal izateko eremu bakoitzak dituen ezaugarriak jaso dira eta kolore desberdinekin adierazi dira.

Ekimen berritzailea eta aitzindaria da Legazpin eta orain dela gutxi, Udalsarea 21eko Berringurumena programan % 90eko diru-laguntza jaso du.



Azterketaren ildoak jarraituz, Legazpiko drainatze iraunkorreko lehen sistema errealitatea da Latxartegiko parke txikian.

Horrela, Latxartegiko parke txikia berritu beharra zegoela ikusita, drainatze iraunkorreko sistema bat jartzea erabaki da; sistema horri eskera euri-urak jasotzen dira eta ondoren lurzorura iragazten dira. Eta era berean haurrak jolasteko elementu bat da.



Laubide auzoko parkeko estalkirako drainatze iraunkorreko hurrengo hiri-sistema planteatzen da: aurkezpena eta proiektuaren kontrastea

Latxartegiko esperientzia eta gero, Udalak Laubide auzoko parkea estaltzeko 2018ko aurrekontuetan jaso duen konpromisoa bete nahi du eta proiektuan drainatze iraunkorreko sistema bat sartu nahi du. Horretarako, aldez aurretik azterketa egin zen eta Laubideko eremua oso eremu irazgaitza dela egiaztatu da.

Ane Mendinueta udal arkitektoak proiektuaren gako nagusiak azaldu ditu; eta jarraian, Oreka enpresako Ekaitz Uribek, azterketaren arkitekto arduradunak, zehatzago azaldu du proposamena.



Proiektuaren helburua:

Laubide auzoko parkea estalki berdearekin estaltzea. Estalki berdea, drainatze iraunkorreko sistema bat da, euri-ura bertan atxikitzea ahalbidetzen duena ondoren euri hori lurzorura iragazteko.

Abiapuntuaren oinarriak:

Estalkiaren diseinuan eta eraikuntzan iraunkortasun-irizpideak txertatzea: egurrezko egitura, herriko egurra erabiliz.

Proposamenaren xehetasunak:

- Estalki laua, herriko egurrezko eta eraldatu gabeko egitura baten gainean –zerratutako egurra, mantentze-lan gutxi eskatuko duena eta denborarekin gris kolorea hartzen joango dena-. Egurrak ondo jasaten ditu klima- eta soinu-aldaketak.
- 6 metroko batez besteko altuera proposatzen da (horrela, dauden jolasetatik goraino 2 metroko tartea utziko da, segurtasuna bermatuz). Ez dira argizuloak aurreikusten eta horrek mantentze-lana optimizatuko du.
- Egituraren egonkortasuna zutabeetan oinarritzen da (zutabe karratuak eta ertz borobilduak). Ezkerraldean bi zutabe-lerro egongo dira eta horrek ere egonkortasuna bermatzen du; bertan plataforma batzuk egokituko dira estalkira igo ahal izateko eta mantentze-lana egiteko. Sarbidearen plataforma itxita egongo da.
- Landare-estalkia geruza desberdinez dago osatuta; horietan euri-ura pilatzen doa, ondoren, zorroten batetik poliki-poliki zorura joan dadin. Sedum berdea landare mamitsuez osatzen da eta horrek mantentze-lan gutxi eskatzen du.
- Egituraren orientazioak neguan parke argitsua izatea eta udan jolasak itzalean egotea ahalbidetuko du. Barrutik argituta egongo da.

Proposamena azaldu ondoren, solasaldiari eman diogu hasiera, taldeko kideen iritziak ezagutu nahian. Proposamenaren argi-ilunak azaleratu nahi dugu, proiektuaren behin betiko proposamena egiteko. Ondoren, egindako ekarpenak jasoko ditugu:

Proiektuaren kontrastea taldearekin

Zer ikusten dugu ondo planteamenduan? Zer dugu gustuko?

- Estalkiaren proposamena; hemen euri asko egiten du eta garrantzitsua da estalitako parkea izatea.
- Proposamenaren planteamendu orokorra, drainatze iraunkorreko sistema ezartzen duelako eta koherentea delako iraunkortasun-irizpideekin eta klima-aldaketaren aurkako borrokarekin eta aldaketa horretara egokitzearekin –Legazpi Klima 2030-.
- Material naturalaren eta herrikoaren alde egin den apustua.
- Estalkipean, parkean bertan eserlekuak ere jartzeko proposamena.
- Diseinuan eguzkiak urtean zehar duen mugimendua kontuan hartu dela.
- Egitura irekia dela.
- Estalkiaren portaera teknikoa, akustikoa eta termikoa.

Zerk sortzen ditu zalantzak? Zer aztertu behar dugu berriro behin betiko proiektua egin aurretik?

- Euria: planteatu den egitura laua da eta zutabe irekiak ditu, euria egitean nola babesten du horrek?.

  Horren haritik hainbat ideia proposatu dira, ikuspegi teknikotik eta ekonomikotik aztertuko direnak:

  - Egiturari teilatu-hegalen bat eranstea.
  - Edo gortina natural bat planteatzea –landare igokari motaren bat- ura pasatzea zailduko duena (kontuan hartuta neguan argia sartzea ere zalduko duela horrek).

  Era berean, euri asko egiten duen egunetan jendea ez doala parkera esan da eta ondo babesteko modu bakarra parkea erabat ixtea da.

- Egituraren orientazioa: planteatu denaren arabera, ikusizko eragin handiena (ezkerraldea, zutabe bikoitzekin eta plataforma-gunearekin) parkera ematen duten etxebizitzen pare-parean geratzen da.

  Egitura biratzea proposatu da, alde hori justu beste aldean gera dadin – eta udan parkea eguzkitik babesteko lagungarria izan daitekeen baloratuz-.

  Altuerari dagokionez, 5 eta 6 metro artean egon daitekeela baloratu da.

- Zutabeak izatea egiturari egonkortasuna ematen dioten elementuak. Baina hori ez da modu negatiboan baloratzen; beste aukera bat zutabeen kopurua murriztea eta eusteko kableak jartzea izan daiteke; edo tarteko aukera bat bilatzea.

Ekaitzek eta Anek esan duten bezalaxe, gaurko kontrastea aberasgarria da eta oso erabilgarria behin betiko proiektua idazteko. Eskerrik asko talde!

Eta taldeak eskatutakoari erantzunez, emaitzaren berri emango da Agenda 21eko Foroan.

4. ESKERRAK EMATEA ETA AMAIERA

Eta bukatutzat eman dugu tailerra, aire freskoarekin parkean, eta helburua beteta!

Eta pozik goaz, kalean bertan azaldu dugulako Agenda 21eko Foroan nola egiten dugun lan. Zain izango gaituzue hurrengo tailerrean!

Eskerrik asko guztioi, ondo izan!